

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAITZ-GAUNAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntzak ematen dituzten oinarri araei

Udalbatzak, 2018ko otsailaren 26ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onarpena eman zien eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntzak ematen dituzten oinarri araei.

Erabakiaren xedapen zatiak honako hau dio:

“Lehenengoa. Onartzea eraikinen ikuskapen teknikoa (EIT) egiteko dirulaguntzak ematen dituzten oinarri arauak.

Bigarrena. Oinarri arau horiek hogeita hamar egun baliodunez jartzea jendaurrean. Horretarako iragarki bana argitaratu dira ALHAOn eta udal iragarki taulan.

Hirugarrena. Jendaurrean den bitartean erreklamaziorik edo oharrik aurkezten ez bada, hasierako erabaki hori behin betiko erabaki bihurtuko da, beste bat onartu beharrik izan gabe.”

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Azilu, 2018ko martxoaren 5a

Alkatea

SUSANA DIAZ DE ARCAYA CUBILLO